EBAZPENA, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, Hezkuntza Sailari atxikitako sukaldeko eta garbiketako lan-kategorietako lan-kontratuko langile finkoen lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuetan onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartzen duena.

Hezkuntzako sailburuaren 2026ko uztailaren 21eko Aginduaren bidez, Hezkuntza Sailari atxikitako sukaldeko eta garbiketako lan-kategorietako lan-kontratuko langile finkoen lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuetarako deialdia egin zen.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, aipatutako deialdiaren 4. oinarrian xedatutakoarekin bat etorriz, hau

EBAZTEN DUT

1. –Hezkuntza Sailari atxikitako sukaldeko eta garbiketako lan-kategorietako lan-kontratuko langile finkoen lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuetan onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartzea.

2.- Ebazpen hau eta behin-behineko zerrenda, interesdunei jakinarazteari begira, Enplegu Publikoaren Atarian argitaratuko dira, helbide elektroniko honetan: https://www.euskadi.eus/enplegu-publikoa/

3.- Onartutako izangaien zerrendan agertzeak ez du esan nahi deialdi honetan eskatutako betekizun guztiak betetzen dituztenik. Deialdiaren 9. oinarriaren arabera hautatuak izanez gero aurkeztu behar den dokumentaziotik ondorioztatzen bada horietako bat ez dutela, ukitutako pertsonek prozedura honetan parte hartzetik erator daitezkeen eskubide guztiak galduko dituzte.

4.- Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendaren aurka, erreklamazioa aurkeztu ahal izango da, hamar egun balioduneko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, edo, hala badagokio, zuzendu ahal izango da baztertzea eragin duen akatsa. Dagokion tasa ez ordaintzea ez dago akats zuzengarritzat hartuta.

Vitoria-Gasteiz, sinatzen den egunean.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,

UNAI NIETO MARIJUAN

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikoan** egiaztagarria, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.